

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Bada garaia etxeko altzairi klasikoenak ere gaur egungo teknologia berriztatzaileekin uztartzeko. Hori da **‘Bello Tempo’** enpresak eskaitzen dituen onuretako bat. Alegia, **‘Biancaneve’** deituriko ispilu adimendunari esker, modaren mundua hankaz gora jarriko dugu; zentzu hoberenean, jakina. Adimen artifizialaz baliatuz, gure produktu berriak bezeroen gorputzaren analisi bai eraginkor baita zehatz bat ere egin ondoren, neurriak kalkulatuko ditu. Horri esker, denda birtualetako arropa modu errealista batean nola geratuko litzaien azaltzen du.

Hori gutxi balitz, diseinu moderno eta minimalista duen ispiluak punta-puntako software bat darama, makina bat estiloko arroparen bilaketa errazten duena. Ondorioz, erabiltzaile bakoitzaren neurriekin eta gustuekin profil birtual bat osatzen da. Noski, neurri, garaiera, proportzio eta behar oro bermatzea ezinbesteko baldintza da, **enpresa inklusiboa** baikara. Hala, gure erosleen artean erosketetara joatea gustatzen ez zaienak, denda fisikoetatik urrun bizi direnak, aisialdi urria dutenak eta jantzi mota espezifikokoak bilatzen duten pertsonak aurki ditzakegu, besteak beste.

Ispiluaren ezaugarriei dagokienez, aurrez aipatutako software berritzaileaz gain, produktuaren goialdean eskaner bat aurki dezakegu (gorputza neurtzeko erabiliko dena). Eskanerrak ez du irudirik grabatzen, bezero ororen segurtasuna eta pribatutasuna bermatuz. Hori aktibatzeko pantaila interaktiboaz balio gaitezke. Jakina, ispilu bera da pantaila, argi zuri eta jasangarriz inguratuta dagoena. Ildo beretik, korrante elektriko eta WiFi bidez funtzionatzen du.

Gure produktuak makina bat onura dakartzkio merkatuari. Hala nola, **nobedadea da balio kualitatiboetako** bat; munduan ez dagoen teknologia berritzaile bat eskuratzeko aukera bikaina da eta. Honi esker, teknologia mota honetan interesatua dauden bezero guztiak gure enpresara jo beharko dute. Gainera, **eskuragarritasuna** ere eskainiko genuke, lehen merkatuan erabilgarri ez zegoen produktua salgai jarriko baikeguke.

Horrez gain, gure produktuak **denbora aurrezteko** gailu bikaina izan daitezke. Gure ispiluekin denbora gutxian arropa mota desberdin asko probatzeko aukera emango luke. Gainera; marka, estilo eta talla guztietako arropa eduki genuke erabilgarri gure webgunean.

**Balio kuantitativoari** dagokionez, gure produktuaren **prezioa altu samarra** bada ere, kontuan hartu beharreko datua da gure bezeroen botere ekonomikoa nahiko altua dela. Alegia, beste balio kualitatiboen onurak prezio altuarekin alderatuz, produktuak merezi duela ikusiko dute.

**Leire Hoyos, Mikel Bakedano, Eneko Sulibarria, Oihan Gordaliza eta Amaiur Moriana**